



AHOLKULARITZA EGINKIZUNA: [TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA - 2015 -](#)

DBEBk hainbat kanal jarri ditu herritarren eta EAEko administrazio eta erakunde publikoen eskura, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen gaineko informazioa edo aholkularitza eskatzeko. 2015ean Agentziak 700 aholkularitza eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arreta eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Kontsulta gehienak telefono bidez jaso ziren, bigarren tokian posta elektronikoz jasotakoak daude, eta hirugarren tokian bertatik bertara zuzenean egindakoak.

Kanal anitzeko arreta da herritarrek gehien erabiltzen dutena, eta administrazio publikoek ere gero eta gehiago erabiltzen dute. Enpresak eta pribatutasunaren esparruko profesionalak erabiltzen dute gutxien.

Oso ondo baloratutako zerbitzua da, galderak eta zalantzak berehala erantzuteko balio duelako.

Galderetako gaiak ikusita, honakoak dira gehien agertzen direnak: datu lagatzea edo komunikazioa, fitxategien erregistroa, AZETA eskubideak eta bideo-zaintza.

AZETA eskubideen gaineko kontsultak argi uzten dute herritarrek gero eta interes handiagoa dutela Interneten datuak ezabatu ahal izatearen gainean.

Azpitarratzekoa da aurten asko igo direla datu pertsonalak argitaratzearen edo hedatzearen gaineko kontsultak, eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak ere bai. Hori gertatu da administrazio publikoak oso arduratuta daudelako gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ondo uztartzeko pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidearekin; hain zuzen ere, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea ezarri behar dutelako, eta legeak publizitate aktiboaren eta pasiboaren arloko hainbat betebeharrak ezartzen dituelako.

Datu pertsonalak babesteko eskubidea bermatzen duen agintaritza izaki, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak arlo honetan izan duen zeregin behinena izan da administrazio publikoei irizpideak ematea bata bestearekin estu-estu lotuta dauden bi eskubide horiek uztartzeko, horretarako, pertsonak jardura publikoaren berri izateko duten eskubidearen eta pribatutasuna babesteko duten eskubidearen artean beharrezko oreka bilatuz.

Agentzia, eskubideen arteko orekaren alde aritu da lanean urteotan, eta eguneroko lana du ponderatzen eta bateratzen saiatzea pertsonen datu babesarako eskubidea eta babes bera merezi duten beste eskubide batzuk.

Horrez gain, 2015ean beste era askotako kontsultak ere argitu ditugu, biztanleen erroldako datu tratamenduei buruzkoak, segurtasun neurriei buruzkoak eta datuen kalitatearen printzipioari buruzkoak. Gainera, oraindik ardura ematen dute osasun datuen edo kolektibo ahulenen datuen tratamenduek —esate baterako, adingabeak eta genero indarkeriaren biktimak—, eta sare sozialen erabilerak. Kanal hauen bidez, beste



esparru batzuetako kontsultak ere ebatzi ditugu: gizarte zerbitzuak, hezkuntza, kontrol politikoa, segurtasun publikoa, tratamendu arduradunaren eta tratamendu-eragilearen figurak, eta hildako pertsonen buruzko eta pertsona juridikoen eta banakako enpresariok buruzko datu tratamenduak.

Kanal Anitzeko Zerbitzu honetaz gain, Agentziaren web orrian maiz egiten diren galderen eta erantzunen zerrenda bat dugu (FAQ). Datu pertsonalak babesteari buruzkoak dira, eta DBEBri behin eta berriz egiten dizkioten galderari buruzko informazioa eskuratzeko baliogarriak dira.